

PRODUKTIBITATEAREN OSAGARRIA ADMINISTRAZIOAN.

Nafarroako Administrazio publikoko langileentzako itun berriaren negoziazioetan, Mahai Orokorrean, Administrazioak aurkeztu duen berrikuntza adierazgarriena, produktibitateari lotutako diru osagarri aldakorra sortzeko jartzen duen interesa da. Osagarri hau subjektiboa, banakakoa eta egonkor ezina da eta errendimendu, jarduna, interesa, parte hartzea eta langilearen egiazko presentzia bere lanpostuan sustatzeko eta baloratzeko aitzakiaz sortzen da. Praktikan suposatzen duena da egun dagoen zatiketa-aren areagotzea eta diskriminazio nabarmena bi irizpide ezberdinen arabera sortzen delako osagarria batzuei asistentziarengatik eta bestei helburu batzuk betetzeagatik. Ez da harrizkoa zentzu honetan Epaitegi Zentraleko 5 zenbakia duen Kontentzioso Administrazio berak 2004ko urriaren 5ean jokatzeko era hau “soldatak ordaintzeko modu aberante” bezala kalifikatzea.

Administrazioak osagarri aldakorrek ordaintzeko bi era aurkezten ditu:

- a) Bertaratzearengatik. Osagarri hau zerbitzu buru eta jefaturatan daudenei kenduta, Administrazio langile guztiei, behin betikoei zein behin behinekoei ordainduko litzateke. Jasoko litzateke lan egutegian definitutako egun guztietan lanera bertaratzearen arabera. Administrazioak proposatzen duen diru kantitatea A mailarako 210 € eta B mailarako 173,25 € da. Diru hau kobratuko litzateke huts egindako egunen arabera. Baloratzeko sei hilabeteko bi aldi ezarri eta aldi horretan 20 egun baino gutxiagoko hutsegiteekin sei hilabeteko izango da kobratzeko eskubidea. Osagarri hau urtearekin batera kobratuko da, urtarrileko nominan. Lanera hutsegitea kontsideratuko dira lanera ez joatea gaixotasunarengatik (laneko gaixotasunak kenduta), istripuarengatik (lan istripuak kenduta) eta baimena eta lizentziarengatik ez bertaratzeak, amatasunarena kenduta. Gera daitezke kanpo baita ere araututa dauden baimenak eta lizentziak zein ordu sindikaleko eskubideak.
- b) Helburuak betetzeagatik. Zuzendaritza eta buruzagitza lanpostuentzako eta behin betiko langileentzat. Berez norbanakoari lotuta behar zuen osagarria lanpostuari lotutako osagarria bihurtzen da helburuen definizioa zerbitzuari lotuta dagoelako eta ez delako betetze mailaren araberako taula bat aurre ikusten. Gehiago ematen du zuzendaritzako zenbait lanpostuen soldata egonkorrek hobetzeko modu bat ardurarengatik ematen den kasuarengatik bezala eta hau ere Audientzia Nazionalen Kontentziosoak salatu du 2005/06/18an emandako epaian. Horrela osagarri

hau objektiboa, lanpostuari lotuta eta osagarri espezifikoaren berdina bihurtzen da, hau egonkorra izateko eta lanpostuko baldintza bereziak ordaintzeko sortua delako. Administrazioak aurkeztu duen proposamenean osagarri honek suposatuko luke 2006an 320€ zerbitzuko zuzendarientzat eta 270€ Atal buruentzat eta 220€ Negoziatuko buruentzat. Ordainketa urtekoa izango litzateke eta urtarri-leko nominan ordainduko litzateke.

STEE-EILASEk oso larritzat jotzen du honelako osagarrien proposamena soldata ordainketak egiteko era baztertzaila eta arbitrarioa delako. Osagarriak ezartzeko era eta irizpide ezberdinak definitzen direlako eta lan harremanak norbanakoan oinarrituta eta hierarkiakoak bihurtzen dituelako oraindik gehiago. STEE-EILASEk ordainketa politikari dagokionez oinarrizkoa kontsideratzen du:

- Nomina erraztea, osagarriak ez gehitzea eta oinarrizko kontzeptuak izatea oinarrizko soldata eta irakasleen osagarri espezifikoa.
- Irakasle guztiek egoera administratiboa edozein delarik kontzeptu berdinegatik jaso behar du soldata. Onartu ezina da behin behineko kontratuarekin lanean dauden irakasleei gradua, antzintasuna eta familia laguntza ukatzea.
- Ordainketarako osagarri aldagarriari ez; lana egiteko modua lanpostuari lotuta dago eta irakasleen osagarri espezifikoaren bitartez ordaindu behar dira lanpostuarekin lotutako zailtasunak, ardura eta dedikazioa.
- Ardura handiko lanpostuekin lotutako osagarriak murriztu eta lan ordu librean konpentsazioarekin ordezkatzeko.
- Helburua irakasleen kidego bakarra izanik irakasleen osagarri espezifikoaren berdinketa, behe mailatan osagarriak handitzen hasiz.
- Hurbileko etorkizunean irakasleen kidegoan sartzeko baldintza izango den gradu titulazio berria dela eta irakasleen kidego ezberdinen desagerpenerako neurrien ikerketa funtzionamenduan eta soldatan bakarra izango den irakasleen kidegoa sortzeko.